

AURKEZPEN-DOSIERRA

# Lanetik

## PROPOSAMENA

ENPRESAN TALDE-  
ZENTZUA HOBETZEKO



**baketik**

2013KO UDABERRIA

# Lanetik

## PROPOSAMENA

ENPRESAN TALDE-LANA  
HOBETZEKO ZENTZU  
ETIKOA DUEN ESPARRUA  
LAU GAKOREKIN

• **GIZA FAKTOREA**

• **TALDE FAKTOREA**

• **BERRIKUNTZA FAKTOREA**

• **ELKARTASUN FAKTOREA**



## HITZAURREA. BAKETIK-EN ABIAPUNTUA

2010-11 ikasturtean, Baketik-ek lan-ildo bat zabaldu zuen enpresa-eremuan berrikuntzaren etikaren inguruan argitalpen monografikoa argitaratuz eta izenburu berdina zeraman ikastaroa eskainiz. Bi ekimenek jaso zuten balorazio onak ildo honetan sakontzera eraman zuen Baketik-eko taldea.

Horrela, 2012-13 ikasturteari begira, Lanetik proposamena prestatu genuen, txosten honetan laburki aurkezten duguna. Alderatu ezin den eta behar ez den krisi-testuinguruan argia ikusi zuen programa honek. Baketik-ek bere esanahiari buruzko irakurketa propioa egingen du. Lanetik proposamena lau puntutan labur daitekeen azterketa horretan txertatzen da:

·**Krisi globala.** Ez da krisi ekonomikoa soilik. Kolapsatzen ari den eredu-krisi baten aurrean gaude. Bere jatorria hauxe da: indibidualismo materialistenean oinarritutako zoriontasun-ideologia bat nagusitu egin da. Bere emaitza: haztaperen mugagabearen oinarritutako eta kolapsatzeko joera duen sistema bidegabea. Premiazkoa da gizarte-eredu berriak bultzatzea.

·**Krisi pertsonala.** Ideologia horrek bizitzeko moduak oinarritzen ditu. Zoriontasuna modu indibidualistan ulertzeko modu hori deshumanizatzen eta bizitzaren zentzua nahasten duen itxaropen faltsua da. Garrantzitsua da bizitzeko modu berriak bultzatzea.

·**Krisia enpresan.** Enpresa eszenategi horretako aktore eta biktima da. Hazkunde eutsiezinenaren zalantza globalaren eta berehalakoaren desorientabidearen artean harrapatua dago. Eredua aldatzeko bidea behar du, enpresarentzat eta gizartearentzat baliagarria izango dena.

·**Ondorioa.** Beharrezkoa da gizarte-, garapen- eta aurrerabide-eredu berriak, eta baita bizitzeko modu berriak ere, bultzatzea. Beharrezkoa da aldaketa pertsonala, politikoa, ekonomikoa, enpresariala eta abar ezezik pertsonala, kolektiboa eta abiapuntu gisa etika duena bultzatzea. Zentzu-esparru berri batean oinarritzea behar duen aldaketa kulturala da.

## 1. LANETIK PROPOSAMENA OINARRIAN DUEN DIAGNOSTIKOA

Lanetik proposamenak izaera irekia dauka unibertso enpresarialarekin partekatu eta kontrajari nahi dugun hipotesi batetik abiatzen baikara metodologikoki. Hipotesi edo diagnostiko hori esaldi batean laburtzen da: «Enpresak zentzu-esparrua behar du». Ez hain modu laburrean horrela adierazten da:

*«Egungo krisi-, nahaste-, eta ziurgabetasun-egoerak planteatzen dituen galderen aurrean, eredu berriak sustatu behar ditugu, nahitaezkoa bada ere ondorengo onartzen hastea: inork ez dauka asmatze-bermea duen erantzunik.»*

*•Hori horrela izan arren, enpresak ezin du etsipenean baztertuta geratu, ezta inertiaren paralisian gelditu ezta salbatuko duen formula mirariaren itxaropenean harrapatua ere.*

*•Geure hipotesia honakoa da: horrelako eszenategi konplexuan eta zalantzarrian, enpresak zentzu-esparrua behar duela. Enpresak **zentzu-esparrua** eratu eta partekatu behar du, bere esku dagoenetik abiatuta. Zimendatzea, egonkortasuna, irekiera eta talde-espirtua emango dion zentzu-esparrua izango da.*

*•Zehatzago esanda, bere zentzu-esparru propioaren eraketan subjektu aktiboa izateko beharra dauka bi irizpiderekin: bat, bere esku dagoen hartan arreta jartzea; eta bi, kanpora zabaltzea eredu berriak sustatzen laguntzeko.*

*•Esparru-zentzu hori ez da aurkezten konponbide majikoen formula gisa enpresarentzat. Zentzu-esparru batek larritasun-egoeran orientazio- eta lasaitasun-baldintzak sortzen ditu eta hobetzeko, aldatzeko eta taldean aurrera egiteko tresnak eta baliabideak eskaintzen ditu.*

## 2. LANETIK PROPOSAMENAREN ERANTZUN-PROZESUA

Baketik-ek Lanetik proposamena diseinatu du, enpresa, zentzu-esparrua, etika eta talde-lana batzen dituen proposamena. Bere oinarriko osagaiak ondorengoak dira:

**•Lanetik proposamenaren ikuspegia.** *Itxaropenik altuena...* Mundu bidezkoago bat bultzatu, ekonomia- eta garapen-eredu zentzuzkoak eta jasangarriak sustatuz. Aldaketa sozialari eta pertsonalari, pertsonalari eta sozialari lagundu.

**•Zeregina.** *...eta helbururik xumeena.* Enpresan, enpresaren eta gizartearentzat aurrerabide-baldintzak sortu. Berrikuntza etiko bati eta enpresen eta erakundeen kulturen eraldaketa bati bidea zabaldu .

**•Helburu nagusia.** Proposamen hori enpresaren helburu nagusi bati zuzendua dago:

*-Talde-zentzua hobetzea eta elkarlanerako dinamikari dagozkion desadostasunak edo gatazkak gainditzen laguntzea enpresan edo erakundeetan.*

**•Estrategia.** kuspegi, zeregin eta helburu nagusi horietara bideratzeko estrategia ondorengo da:

*-Geure esku dagoenetik abiatuta, zentzu-esparrua eratzea eta partekatzea. Eta benetakoa izan dadin, batez ere, osagai etikoa izan beharko duena.*

**•Prozesu-ikuspegia.** Zentzu-esparru baten definizioa ez da lortzen argibide-gidaliburu bat hitzez hitz aplikatuz. Prozesua da eta ikuspegi hori kontuan izango duen tratamendua merezi du.

•**Ibilbide didaktikoa.** Talde-lana hobetzera zuzendutako zentzu etikorako esparru hori eratzeko eta partekatzeko, esperientzia-ibilbide bat iradokitzen dugu lau gakorekin:



Programaren didaktikak zentzu-esparru partekatua definitze aldera aurrera egiten du lau ibilbide horiek zentzu etikoarekin bat egiten lagunduz.

•**Pedagogia.** *Bizizikasi* pedagogia erabiltzen dugu, hobetzen ikasteko pedagogia bat eta proposamen hau, iparrorratz gisa, zeharkatzen duena puntu kardinalak osatzen dituzten oinarriko lau ikaskuntzen bidez.

•**Premisak.** Proposamen hau lau irizpide gidarietan oinarritzen da. Bere premisak dira. Krisi eta aldaketa-behar egoeran, enpresak oinarri sendoak behar ditu. Hori da bere zentzu-esparrua: orientabide-irizpide oinarrikoak eta fidagarriak.

-**Geure esku dagoenean arreta jarri.** Giza kapitala eta hautatzeko duen boterea bere aukera-eremuan (Giza faktorea).

-**Talde-lanari lehentasuna eman.** Elkarriketa erabili eta barne prozesuak partekatu, gatazkari zein aldaketari aurre egiteko (Talde faktorea).

-**Etika eta aldaketa elkartu.** Aldaketarako jarrera irekia bezain identitate zentzu etiko batean oinarritutakoa (Berrikuntza faktorea).

-**Errentagarritasuna eta elkartasuna integratu.** Onurak bilatzea zeregin sozialaren konpromisoari lotzea (Elkartasun faktorea).

•**Lanetik Proposamenaren eskaintzak eta programak.** Lanetik proposamenak bi eskaintza ditu: ikastaroak eta tailerrak.

•Formazio-ikastaroak «Maiatzeko larunbatak» programaren bidez edo Aukeran programaren bidez.

•Sakontze-tailerrak problematika epezifikoak lantzen dituzten «Lanetik-eko Tailerrak» programaren bidez.

### 3. 2013RAKO PROGRAMA: «MAIATZEKO LARUNBATAK»

Formazio-proposamena da eta maiatzeko lau larunbatetan garatuko da: hiru lehenengoak goizez eta azkenengoa goizez eta arratsaldez.

•**Programaren egitura.**

13-05-04 9-13.30 **Giza faktorea.** Oinarriko lau ikaskuntza.

13-05-11 9-13.30 **Talde faktorea.** Hamabi oztopo eta alternatiba-eredua.

13-05-18 9-13.30 **Berrikuntza faktorea.** Berrikuntzaren etikarako oinarri praktikoak.

13-05-25 9-13.30 **Elkartasun faktorea.** Konpromisoa eta zentzu-balio gehigarria.

15-17.00 **Laburpena.** Ondorio praktikoen programa.

•**Nori zuzendua dagoen.** Eskaintza hau, egungo testuinguruan enpresaren zereginari eta aukerei edo bere ondorio pertsonalei, sozialei edo enpresarialeiei buruzko kezka dituzten pertsonentzat edo erakundeentzat pentsatua dago. Modu zehatzago batean, bereziki erabilgarria izan daiteke enpresa-munduarekin harremana duten pertsonentzat zuzendaritza-erantzukizunak eta hobekutza pertsonalak, korporatiboak edo sozialak bilatu nahi dituzten pertsonentzat.

•**Formazio-programaren izenburua.**

*Lanetik proposamena. Maiatzeko larunbatak  
Enpresan talde-zentzua hobetzea*

•**Formatua.** 20 orduko programa da, maiatzeko lau larunbatetan lau ordu eta erdiko lau saiotan eta azken larunbatean bi orduko bosgarren saio batean banatua.

•**Baliabide didaktikoak.** Ikastaroak hitzaldiak, solasaldiak, bakarkako eta taldekako lana, filmekin lana eta dinamika elkarreragileak bateratzen ditu.

•**Bertaratzea.** Bost saiotan parte hartzea ezinbestekoa ez izan arren, gomendagarria da.

•**Matrikula.** -Programa osoa: 250 euro.

-Saio bakoitza: ·Goizeko saio bakoitza, 70 euro.

·Arratsaldeko azken saioa, 35 euro.

-Azken saioko bazkaria: 15 euro.

•**Izen-ematea:** 943-251005 / info@baketik.org

**Eskaintza osagarria.** Lanetik proposamenaren barruan, Baketik-ek beste eskaintza osagarria dauka prest. Bizikidetzara edo talde-lana hobetzeko eta barne gatazka eraldatzeko, gainditzeko eta bideratzeko tailer espezifiko bat da.

## 4. LANETIK PROPOSAMENAREN BESTE PROGRAMAK

«Maiatzeko larunbatak» programa aurrez zehaztutako egutegian eskaintzen den formazio programatua da. Aukera honez gain, Lanetik proposamenak beste bi programa eskaintzen ditu: «Aukeran» eta «Lanetik-eko tailerrak».

•**«Aukeran» programa.** Aukera honen bidez, «Maiatzeko larunbatak» programaren formazio-proposamen berdina eskaintzen zaie enpresei, baina formatu ireki batean eta enpresa bakoitzaren aukeretara eta beharretara moldagarria.

Horrela, Aukeran programaren bidez, enpresa bakoitzak egutegia, ordutegia eta lekua aukera ditzake ikastaroa egiteko: enpresan bertan edo beste eremu batean.

Zalantzarik gabe, formazio-programa honen neurria egindako diseinuan, enpresa bakoitzak saio bakarra, batzuk edo guztiak hitzartzeko aukera izango du. Ikastaro bakoitzaren ordutegia ere trinkoagoa edo zabalagoa izateko aukera izango du. Zentzu honetan, bakoitzak daukan denboraren arabera, formazio-eskaintzak ad-hoc prestatu ahal izango dira.

•**«Lanetik-eko tailerrak» programa.** Lanetik proposamenean sakontzeko programa da honako hau. Tailer-dinamiketan oinarritzen da enpresa bakoitzari modu espezifikoan dagozkion gaiak jorratzeko eta lantzeko. Gai horiek, modu orokorrean, enpresaren zentzu-esparruaren erreferentzia oinarri hartuta eta *Bizikidetzara* pedagogiaren tresnaren bidez landuko dira.

Mintegi hauetan jorra daitezkeen gai espezifikoak honakoak dira: enpresaren funtzio-namendu onari dagozkion problematika espezifikoen tratamendua: giza harremanak, gatazkak, blokeoak, komunikazio txarra, talde-lanerako zailtasunak...

Tailer horien formatuak eta ordutegiak aukera-sorta zabala dauka. Logikoki, eskaera bakoitzaren arabera diseinatuko da eta enpresen egoitzetan zein beste eremu batzuetan garatu ahal izango da.

## AZKEN HITZAK. LABURBILDUZ, PROPOSAMENAREN KOORDENATUAK

•**Mapa.** Egungo krisi-, ziurgabetasun- eta desorientazio-egoeraren barruan, proposamen honek berrikuntza- eta enpresan, enpresaren eta gizartearentzat aurrerabide-mapa gisa jokatatu nahi du.

•**Eguneko bidea.** Bere eguneroko bidea markatzen duten irizpide didaktikoak lau dira:

- Geure esku dagoenarekin kokatzen ikastea, giza kapitalarekin.
- Blokeoak gainditzen ikastea, talde-zentzuari eta -lanari lehentasuna emanez.
- Hobetzen ikastea, etika eta aldaketa batuz berrikuntzarako.
- Bultzatzen ikastea, errentagarritasuna, zeregin soziala eta elkartasuna integratuz.

•**Luzera.** Formazio-proposamena lau modulutan egituratzen da:

- Giza faktorea.
- Talde faktorea.
- Berrikuntza faktorea.
- Elkartasun faktorea.

•**Latituda.** Lau moduluen zeharkako oinarria zentzu-esparrua osatzea eta partekatzea da. Eta benetakoa izan dadin, osagai etikoa izan beharko du:

- enpresa osatzen duten pertsonak aintzat izango dituen (giza faktorea),
- bizikidetzaharremanetara eta talde-dinamiketara aplikatua (talde faktorea),
- enpresaren hobekuntzari lotua ikuspegi orokorrarekin (berrikuntza faktorea),
- enpresan eta enpresaren zeregin sozialaren identifikazioari lotua (elkartasun faktorea).

•**Iparrorratza.** Formazio-proposamen osoa, iparrorratz gisa, zeharkatzen duen pedagogia *Bizizikasi* pedagogia da eta, oso modu berezian, bere oinarritzko lau ikaskuntzak, kasu honetan, bere iparrorratzaren puntu kardinalak osatzen dituztenak.